

# J. IÑAKI ETXEZARRETA

## XEDEA: EUSKALDUNAREN MARKO MENTALA

### EGINAK AHALBIDETZEN DIGU EGIN GABEA ABIATZEA

Dagoeneko hiru urte pasatxo bete dira Euskararen Aholku Batzordeak aho batez “Eta hemendik aurrera zer” dokumentua onartu zuela. Euskararen garapen iraunkorra zen dokumentu haren helburua, euskararen hazkunde jarraitua hazkunde iraunkorra izan dadin, hain zuzen ere.

Dokumentu hartan adosturikoa eta hezkuntza eremuan gabiltzan batzuk azken hiru urte pasatxo horietan bizitzen ari garen eraldaketa pedagogikoa, hura eta hau, biak, elkarrekin interakzioan jarri nahi da idazki honetan zehar, orduan planteatu genuen erronkari heziketatik erantzuteko asmoz.

Euskarak hogeigarren mendearen bigarren erdialdean izan duen garapena bistakoa eta ikusgarria dela itsuenak ere aintzat hartzen du, zorionez. Euskal herritarren bizpahiru belaunaldi garaikide horiek urratu eta egin duten bidea erreferentzia bihurtu da beste hizkuntza askoren biziberritzeko prozesuetarako nazioartean. Hezkuntzan urratu eta egindakoa, bereziki.

Ikastolek egindako hezkuntza euskaldunaren asmatze eta garatze arrakastatsuen segidan Eusko Jaurilaritza izan da gero eta herritar gehiagok eskatzen zuten hezkuntza euskaldunaren eskola-ekintza arautu eta haren zabaltzearen kudeatzaile

instituzionala. Egun, horren emaitza agerikoa da: hezkuntza-sistema osatzen duten ikastetxeek euskara eta euskaraz irakasten dute eta esan genezake hiru belaunaldietarako, gutxienez, euskarak biziraupena ziurtatuta duela.

“Eta hemendik aurrera zer” dokumentuak etorkizunari begira jasotzen duen proiektzioa kontuan izanez gero, aurreikusten da 2036an Euskal Autonomia Erkidegoko euskaldunak % 49,5 izango direla eta, adinari dagokionez, 25 urtetik beherako herritarren % 83,4 euskalduna izango dela. Zenbateko horietan eragile nagusia, bakarra ez esateagatik, euskarazko hezkuntza da, D ereduan ikasleen % 81,3 arituko baita.

Dokumentu adostu hartan, 2036 urte bitarteko lehentasunak jorratzen ziren atalean, erronka nagusitzat jo genuen euskararen erabilera ze baldintzatan areagotu behar zen mahairatzerakoan, hiru dimentsio bereizten ziren: (1) Norbanakoaren dimentsioa; (2) Dimentsio mikrosoziala; eta (3) Dimentsio makrosoziala.

Hirurok zerikusia dute hezkuntzarekin, baina ez modu berdinkidean. Hiruretarik lehena, norbanakoaren dimentsioa, bada hezkuntza ulertzeko eta praktikatzeko modu jakin batekin erlazio estua duena, bai euskara-gaitasun erlatiboari dagokionez, bai motibazioari dagokionez. Azken honi erreparatu nahi diogu idatzi honen hurrengo lerro eta paragrafoetan, bestea -euskara-gaitasun erlatibo- ondo

baino hobeto adierazita agertzen baita “Eta hemendik aurrera zer” dokumentuan.

Motibazioa bihurtzen ari da gizartean, oro har, eta hezkuntzan, bereziki, arazo ugariaren eraginez: ikasteko gogoaren falta, irakasteko lanean asmatu ezina, bileretan esku-hartze eskasa... Arestian adierazi dugunez, hezkuntza-eraldaketan saiatzen ari garen batzuek uste dugu euskal hezkuntza sortu eta eraikitzearen lehen etapa amaitu dela eta orain gako garaikideak dituen etapa berria hasi behar dela, euskalduntasunari dagokion garabidearekin batera.

Proiekzio demolingüistikoak 2036 urtean irudikatzen duen 25 urteko adinetik beherako herritarren % 83,4 euskaldun hori euskara dakien pertsona izatetik euskararen erabiltzaile / aberkide aktibo izatera lortzeko erronka dugu. Etengabe aldakor eta bizitzaren hamaika aldetan ziurtasun gutxi dituen mundurako gazte euskaldunak prestatzea da gugandik espero dena.

Prestatze hori hainbat modutara egin badaitheke ere, pertsonaren garapena erdigunean jarri behar dela uste dugu hezkuntzaren eraldaketa proposatzen dugunok. Eta horrek zera eskatzen du, prestakuntza akademikoaz harago, ikaslea zein ikaskuntza prozesua pertsonaren garapenean oinarrituriko ikuspegi batetik begiratzea.

Eta gaur-gaurkoz ez gaude hor. Kanpo-frogek zein bestelako presioek sinetsarazi digute gure egiteko nagusia eskola-ibilbidea amaitzen dutenerako ikasleak akademikoki ondo prestatzea dela, baita euskarari dagokionez ere. Baina prestakuntza hori, euren une horretako bizitzarako eta etorkizunerako, mugatua dela uste dugu, ikasle horiek sistema estandarizatu horretan arrakasta izateak ez baitu bermatzen etorkizuneko testuinguru berrietan ondo prestatutako pertsonak eta profesionalak izango direnik. Ezta euskararen aberkide aktiboak izango direnik ere.

Gainera, egungo hezkuntza, oro har, planteatuta dagoen moduan, ez da motibagarria ez ikasleentzat, ez irakasleentzat, ezta familientzat ere. Zenbait kasutan, porrot pertsonala ezkututzen da emaitza onen atzean, eta beste askotan berriz, porrot eskolarrak porrot pertsonala eragiten du. Eta jakin badakigu porrot batek zein besteak zer nolako sufrimendua eragiten duen ikasleengan. Gurean diren atzeritarrak, etorriko direnak eta, batez ere, horien seme-alabak ere gogoan ditugu.

Aldaketez eta galderez beteriko etorkizun horretarako prestatzeko, geure ikasleei egin diezaiekegun ekarpen handiena hau da: pertsona gisa

bere dimentsio anitzetan garatzen laguntzea, euren ibilbide propioa egiten laguntzea, hortik aurrera euren bizitza-proiektua eraiki dezaten.

Iraganean egindakoa asko eta ona izan da, ona ez ezik beharrezkoa orain gauden lekura iritsi ahal izateko. Baina gaur errotik berria den hezkuntza eraldatua behar da, pertsonaren, tokian tokiko komunitateen eta munduaren beharrei erantzuteko. Horregatik diogu hezkuntza euskaldunaren etapa berria abiatu behar dela.

Norabide horretan ari garela, garatzen saiatu eta lagundu behar dugun pertsona horren bereizgarriak eta ezaugarriak lan hipotesi modura identifikatu ditugu, alde batetik. Horietan lortu litezkeen balizko hiru inpaktu mailak, beste aldetik, zehaztu ditugu (Jokabide edo portaera; Ulermena edo ikaskuntza; eta Marko mentala), 2036 urterako bidean eta 2036 buruan behagarri eta neurgarri izan daitezkeen, eta dagozkion hobekuntzak bidean eta buruan egin ditzagun. Eta une honetan ari gara horietara heltzeko oinarritzko hezkuntza-ildoak, aukera metodologikoak eta guztiak hartuko dituen prototipoa diseinatzen, “Eta hemendik aurrera zer” dokumentuan giltzarritzat jotzen den motibazio hori pizteko.

Euskararen erabiltzaile / aberkide aktiboa dugu hurrengo erronka, identitate euskaldun irekia eta solidarioa ezagutu eta bizi duena, identitate horrekin konprometitua, eta eleaniztuna (euskara du pentsatzeko eta erabiltzeko hizkuntza, bigarren hizkuntza bat ere erabiltzen du, nahiko ondo ulertzen eta erabiltzen du hirugarren bat ere, hizkuntzak ikasten ditu, komunikazio- eta identitate-funtzio garrantzitsuak betetzen dutela dakielako).

Eta xedea dugu, berriz, 2036ko pertsona horrek ondoko marko mentala izan dezala:

Defendatzen du izate indibiduala ez ezik, badagoela herri gisa identifikatzen gaituen izate kolektibo bat ere, eta, horregatik, miresmen- eta elkartasun-sentimenduak ditu antzeko egoeran dauden beste herri eta identitate-proiektu batzuekin.

Uste du norberak izan behar duela aldaketen abiapuntu; horregatik, eguneroko bizimoduan euskara eta euskal kultura zabaltzeko konpromisoa hartu du, eta gutxitze-egoeran daudenen aldeko zenbait proiektutan esku hartzen du.

Hizkuntzak ikasteari lagungarri deritza, bai komunikatzeko, bai besteak ulertzeko, bai beste jende eta kultura batzuen errealitateko kide sentitzeko.

Eginak ahalbidetzen digu egin gabea abiatzea.